

E

Arte Garaikideko Hiztegia

Estetika

Edertasunak azaltzeko dauzkan formak estudiatzen dituen zientziaren izena da. Jaio, antzinateko greziarren artean jaio zen, eta jatorriz «pertzepzioarengandik» sortzen da. Filosofiaren parte bat denez, edertasun naturalaren eta edertasun estetikoaren azalpenak argitu nahirik egiten ditu galderak.

Disziplina filosofikoa den neurrian, antzinateaz geroztik existitzen da estetika (Platon, Aristotele), baina Kant izan zen bere «Bereizmen estetikoaren kritika»rekin edertasunaren teoria sistematiko bat garatu zuena. Edertasunak Kantentzat, eta baita geroago Schillerentzat ere, izpirituko baloreen hirutasuna osatzen du, egjarekin eta ongia-rekin batera: sentitu, ezagutu, nahi izan.

Hegelek etikari ez dio jada aitortzen Kantek eta Schillerrek aitortzen zioten lerruna; harentzat ez da behegoko maila bat besterik errealitatearen ezagutza bidean: pertzepzioaren maila. Izpirituaren perfekzio gisa goragoko maila batera iristea, arrazoia- ren bidez bakarrik egin daiteke.

XX. mendean bide desberdinetatik joan ziren joera estetikoak, bakoitza bere eskola filosofiko desberdinaren kutsua hartuz kasu bakoitzean. Estetika *normatibo* edertasuna ulertzen duen bitartean printzipio aldaezinetan oinarrituta, estetika *fenomenologiko*ak, berriz, Edmund Hüsserl eta Max Schelerren eskutik, pertzepzioaren baitan dauden ezagutzako teoriaren suposamenduak nahi litzuzke aurkitu. Heideggerekin iristen du edertasunak, eta bide batez arteak lehen-lehenengo planoan, bere «Transzendenz» maila eta, esperientzia bezala, orduan azal dezake lakia bere substantzian.

Estetika *marxistak* eta *neomarxistak* orientazio soziologikoa hartzen dute. Marxek eta Engelek errealitatearen trasunto kondentsatu bat ikusten dute arte-obran, eta artistaren esperientzia subjektiboaren baldintzek determinatuta dagoela diote. Leninen irudiko, arteak eginkizun garrantzitsua betetzen du gizartearen teoria sozialistarentzat, hain zuzen ere, gizarte sozialistaren azken errealitatea utopia konkretu bezala hartu eta bere produkzioen bitartez aurretik grafikoki ematea.

Teoria kritizista neomarxistak, egintza estetikoaren efikaziazko ahalbide eta arauen doktrina bezala definitzen du estetika, eta helburu horrekin, analisi estetikoak aztertzen du egintza estetikoak zein puntutaraino den, esplikazio sozial eta premia indibidualen askapen den neurrian, errealitatearen

atitze eta jabetze. Estetika, beraz, izango litzateke errealitatea esperientzia kontziente bezala menperatzeko bide bat eta, horregatik, «indar askatzaile» bat erreprezentatzen du (Herbert Marcuse).

Estetika informatiboak, informazioaren teoria matematikotik datorrenak, bolumen informatibo batez integratutako sistema bat osatzen du, horrekin pertzepzioaren bitartez apreziatutako arte-obra baten edukin informatzaile berria neurtzen baitu, honela determinatuz bere berrikuntzazko balioa.

Estetika zibernetikoa

Estetika zibernetikoa informazio-estetikaren parte bat da, eta artearen balioa aztertzen du informazioa emanez, artea hala baiten neurrian, behatzailearen eta objektuaren arteko erlazio-fenomeno bat. Beraz, informazioaren teoria estetikoak zibernetika matematikoan oinarritzen da eta manipulazio, erregulazio eta harrerazko prozedurak aztertzen ditu arte-produktuari ahalik eta informazio-probetxurik handiena ematearren. Zibernetika etikari aplikatu ahal izateko, funtsezkoa gertatzen da notziaren teoria orokorraren printzipioa, honek, izan ere, ikeretzen baitu lehendik dagoen informazio-kantitatetik ateratakoaren eta transmititutako notziaren arteko erlazioa, horrekin neurtuz informazio berriaren eraginez sortzen den aldaketaren balio kuantitatiboa. Arte-alorrera ekarrita, estetika zibernetikoak informazio eta komunikazio estetikoaren erregistro sistematiko bat lortu nahiko luke, horrekin batera bestalde, etengabeko akoplamendu birsortzaile baten bitartez, erabat programatuak izan ez diren garapen dinamikoak ere egiteko aukera ere kontutan hartuz, *computer art* deitutakoan adibidez.

Estetizismoa

Bizi-estiloarekin eta berebat arte-sorkuntzarekin zerikusia duen jarrera-modu bat da; edertasuna jartzen du sentimenen plazerra absolutizatzen duen goreneko balore bezala, eta horrekin erlatibizatu egiten ditu gizartearen balditzamenduak.

Estrukturalismoa

Ferdinand Saussurek hizkuntzalaritzan garatutako metodologia zientifikoa da eta

hizkuntzaren egitura ikertzen du bere edukin semantikoa alde batera utziz. Saussurek bereizi egiten ditu sistema bezala ala gertaera bezala hartutako hizkerak; hau da, forma desberdin eta anitzaren atzetik, esaten du, beti izaten dela mito, erakunde eta portaera guztietan «egitura logiko eta espontaneo bat», antropologia estruktural baten gai izateko modukoa izan daitekeena. Antropologia horrek «bizitza sozialaren oinarri espontaneoak» jartzen ditu jomuga bezala. Beraz, gizonaren eta munduaren arteko erlazioak aztertzen ditu metodologia estrukturalistak. Arte-mundura aplikatuz, horren arabera ezetsi egin behar dela, dio, artea problema isolatu bezala hartzen duen edozein interpretazio, eta aldaketa bat egin nahi du artea sortu den errealitateko estruktura kultural, sozial eta mitikoetatik abiatuz ulertze-aldera. Honela aplikatu izan du Jack Burnham-ek estrukturalismoa arte plastikoetaetara bere *The Structure of Art* (1971) liburuan.

Ezagutzaren teoria

Filosofiaren disziplina didaktiko bat da, logikarekin, etikarekin eta ontologiarekin batera. Ezagutze-prozesuaren araudi sistematikoa aztertzen du ezagutzaren teoriak. Ezagutzaren teoria eta bere metodologia sistematikoa oso garrantzitsuak izan dira artean, kategoria objektiboen bitartez arte-obra baten genesi-baldintzagarritan eta determinazio-ahalbidetan sakontzen duten planteamendu teoriko-kognositiboak oinarritzat hartuz, askatu egiten baitute praxi metodologikoa exegesi hermeneutikotik.

(Karin Thomas: *Dumont's kleines Sachwörterbuch zur kunsts des 20. Jahrhunderts* hiztegiaren itzulpena)

Jordi Pericot. Dibujo para la revista "Tropos", Nr. 7/8, Madrid, 1973.

